# Pribatuen Iragarkiak

## SPRI, S.A.

## 2416

IRAGARKIA, Enpresetan Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia berriak (IKT izenekoak) sustatzeko laguntza neurriak onesten dituena.– Hobeki Digitala Programa.

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Xedea.

Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) Euskal Autonomi Erkidegoko enpresa txiki eta ertainetan sartzen laguntzea.

*2. artikulua.–* Laguntza mota.

1.– Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) enpresetan sartzeko ematen diren laguntzak ez dira itzulgarriak izango

2.– Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) ezartzeko laguntzen eskariak aurkezten doazen neurrian ebatziko dira (behar bezala beteta badaude) eta Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua SAk Hobeki programako dirulaguntza berriak emateko dauzkan urteko aurrekontuetako aurrekontu-kredituaren mugara arte, edo egozketa urtekotua aurrekontuan jasotzeko jarriko den mugara arte, proiektuak gauzatzeko epeen edo dirulaguntzen zenbatekoen arabera.

3.– Laguntzak emateko prozedura arau honen III. kapituluan ezartzen den bezala egingo da.

*3. artikulua.–* Onuradunak.

Enpresa jarduera gauzatzen duten pertsona fisiko eta juridikoak izan daitezke onuradun, horrez gainera, ondorengo baldintzak ere betetzen badituzte:

1.– Beren helbide soziala EAEn edukitzea edo gutxienez jarduera zentro bat EAEn kokaturik egotea.

2.– Europako Batzordeak ezarritako ETEren baldintzak betetzea.

ETEtzat joko dira baldintza hauek betetzen dituzten enpresak:

– 250 langile baino gutxiago izatea.

– 50 milioi euro baino gehiagoko negozio bolumenik eta 43 milioi euro baino gehiagoko urteko balantze orokorrik ez izatea.

# Anuncios Particulares

## SPRI, S.A.

## 2416

ANUNCIO de aprobación de medidas de apoyo para impulsar la incorporación de las Nuevas Tecnologías de la Información y las Comunicaciones (TICs) en las empresas. Programa Hobeki Digitala.

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto.

Apoyo al avance de la incorporación de las Tecnologías de la Información y las Comunicaciones (TICs) en las pequeñas y medianas empresas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 2.–* Naturaleza de las ayudas.

1.– Las ayudas destinadas al avance de la incorporación las TICs en las empresas tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables.

2.– Se procederá a resolver las solicitudes de ayuda para la implantación de las TICs a medida que se presenten siempre que estén debidamente cumplimentadas y hasta el límite del crédito presupuestario consignado al efecto en los presupuestos anuales de la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. para la concesión de nuevas subvenciones del Programa Hobeki o del que resulte necesario para la cobertura presupuestaria de la imputación anualizada, según los plazos previstos de desarrollo de los proyectos, de los importes de subvención que se concedan.

3.– El procedimiento de concesión de ayudas se efectuará conforme a lo que se establece en el Capítulo III de la presente norma.

*Artículo 3.–* Beneficiarias.

Podrán ser beneficiarias las personas físicas y jurídicas que realicen actividad empresarial y que, además, cumplan los siguientes requisitos:

1.– Que tengan su domicilio social en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV) o que al menos un centro de actividad esté ubicado en la CAPV.

2.– Que cumplan las condiciones de Pyme establecidas por la Comisión Europea.

Se entenderán por Pequeñas y Medianas Empresas (Pymes) aquellas que cumplan los siguientes requisitos:

– Que emplee a menos de 250 trabajadores/as.

– Que su volumen de negocio anual no supere los 50 millones de euros, o bien, que su balance general anual no rebase los 43 millones de euros.

Enpresa beste enpresa batzuekin elkartuta edo haiekin lotuta badago, horrela sortutako enpresa taldeak bete beharko ditu aurreko betebehar horiek guztiak.

Enpresa txikiak eta ertainak bereizi nahi badira, enpresa txikiak honako betebehar hauek betetzen dituztenak izango dira:

– 50 langile baino gutxiago izatea.

– Urteko negozio bolumena edo balantze orokorra 10 milioi eurotik gorakoa ez izatea.

Enpresa beste enpresa batzuekin elkartuta edo haiekin lotuta badago, horrela sortutako enpresa taldeak bete beharko ditu aurreko betebehar horiek.

Aurrez aipatutakoaren beste edozein interpretaziorako, mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak zehazteari buruzko 2003ko maiatzaren 6ko Batzordearen 2003/361/EE Gomendioan (EBAO —Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala—, L 124, 2003ko maiatzaren 20koa) edo hori ordeztu edo aldatuko duten xedapenetan ezarritakoa hartuko da kontuan.

3.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan jasotako baldintzak betetzea.

4.– Zerga alorreko betebeharretan eta Gizarte Segurantzari dagokionetan egoera erregularizatuta edukitzea, indarrean dagoen legeriaren arabera eska daitezkeen mugen barnean, hala nola SPRI taldeko edozein elkarterekin dituen betebeharretan ere bai.

Baldintza hauek guztiak bete beharko dira laguntza eskaria eta likidazio eskaria aurkezten den unean, 2. puntua izan ezik, laguntza eskaria aurkezten den unean bakarrik egiaztatu beharko da eta.

Ez dira onuradun izango ez sozietate publikoak ez Zuzenbide Publikoko erakundeak, ezta teknologi zentroak edota informatika aholkularitzako enpresak.

*4. artikulua.*– Laguntza eskariak aurkezteko epea.

Laguntza eskariak aurkezteko epea programa hau EHAAn argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2006ko urriaren 9an bukatuko da.

Laguntza eskariak diruz lagun daitekeen jarduerari hasiera eman baino lehen aurkeztu behar dira.

Salbuespen gisa, tramitepean onartu ahal izango dira 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera abiarazi diren eta eskaera aurkeztean burutu gabe egon diren proiektuen laguntza eskariak, betiere eskaerak 2006ko maiatzaren 31a baino lehen aurkezten badira.

*5. artikulua.*– Diruz lagun daitekeen egitatea.

Ondorengo hauek izango dira diruz lagun daitezkeen egitateak:

En el caso de que la empresa esté asociada o vinculada con otras, los requisitos anteriores deberá cumplirlos el grupo de empresas así formado.

Cuando sea necesario distinguir entre empresas pequeñas y medianas, se entenderá por pequeña empresa aquélla:

– Que emplee a menos de 50 trabajadores/as.

– Que su volumen de negocio anual o balance general anual no rebase los 10 millones de euros.

En el caso de que la empresa esté asociada o vinculada con otras, los requisitos anteriores deberá cumplirlos el grupo de empresas así formado.

Para cualquier otra interpretación de lo señalado anteriormente, se tendrá en cuenta lo establecido en la Recomendación 2003/361/CE de la Comisión, de 6 de mayo de 2003, sobre la definición de microempresas, pequeñas y medianas empresas (DOUE, L 124, de 20 de mayo de 2003), o las disposiciones que la sustituyan o modifiquen.

3.– Cumplir con los requisitos establecidos en el artículo 13 de la vigente Ley 38/2003, de 17 noviembre, General de Subvenciones.

4.– Que tengan su situación regularizada en cuanto a sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, según los límites que resulten exigibles de acuerdo con la legislación vigente, así como para con cualquiera de las sociedades del grupo SPRI.

Todos estos requisitos deberán cumplirse en los momentos de presentar la solicitud de ayuda y la solicitud de liquidación, a excepción del punto 2 que deberá acreditarse únicamente en el momento de presentación de la solicitud de ayuda.

Quedan excluidas de la condición de beneficiario las sociedades públicas y entidades de derecho público, centros tecnológicos, empresas de consultoría informática.

*Artículo 4.*– Plazo de presentación de las solicitudes de ayuda.

El plazo de presentación de las solicitudes de ayuda se iniciará el día siguiente a la publicación de este programa en el BOPV y finalizará el día 9 de octubre de 2006.

La presentación de la solicitud de apoyo deberá efectuarse antes de haberse iniciado la actividad subvencionable.

Excepcionalmente, se podrán admitir a trámite solicitudes de ayuda de proyectos iniciados a partir del 1 de enero de 2006 y que estén en curso en el momento de presentar la solicitud, siempre que estas solicitudes sean presentadas antes del 31 de mayo de 2006.

*Artículo 5.*– Hecho subvencionable.

Tendrán la consideración de actividades subvencionables:

1.– Enpresetan Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) Ezartzeko Planak egitea edota beharrizanak diagnostikatzea, eskaria egiten duen enpresarekin inolako loturarik (zuzeneko nahiz zeharkakoa edo akzio edo partizipazioen bitartezkoa) ez duten erakunde edo enpresa espezializatuek eginak. Plana egiteko, enpresa espezializatuak SPRI SAk emandako metodologia jarraitu beharko du edo, bestela, enpresetan Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) ezartzeko metodologia propioa duela egiaztatu (hau ere SPRIk berariaz onartutakoa).

Metodologia propio bat erabiltzekotan, horrek Enpresa Txiki eta Ertainei zuzenduta egon beharko du, Informazio eta Komunikazio Teknologiak sartzea erabakitzean negozioaren ikuspegia bermatuz modu parte hartzaile batean, hau da, aholkulari eta enpresaburuaren arteko talde-lan baten bitartez. Hori aplikatuz, gutxienez ondorengo atalak jasoko dituen agiri bat lortuko da:

– Negozioa hobetzearren Informazio eta Komunikazio Teknologiak ezartzeko aukerak identifikatzea.

– Aukerak hautatzea, horiek baloratu eta lehentasuna ematearen bitartez.

– Ezarpen horretatik sortuko diren etekin ekonomikoak kuantifikatzea.

– Ezarpena planifikatzea edukietan, kostuetan eta gauzatzeko epeen arabera.

2.– Informazio eta Komunikazio Teknologiak Ezartzeko Planak gauzatzea. Enpresako negozio prozesu guztiak edo parte bat integratzera jo beharko dute eta ondorengo jarduerekin lotuta egongo dira:

– Negozio elektronikoa (e-Business): kudeaketako sistema integratuak eta finantza kudeaketa eta diruzaintza sistemak eta garapenak ezartzea, faktura elektronikoa ezarri ahal izateko enpresan.

– Marketin elektronikoa (e-Marketing): bezeroekiko harremana optimizatuko duten sistemak ezartzea modu honetan: bezeroak leialtzea, bezeroak erakartzea, bezeroen kudeaketa, eskaintzak pertsonalizatzea, publizitatea eta bezeroen datu-baseak sortzea.

– Erosketak (e-Procurement): enpresak modu elektronikoan ezartzea produktuak eta zerbitzuak erosteko kudeaketa sistemak.

– Merkataritza elektronikoa (e-Commerce): enpresak modu elektronikoan ezartzea bezeroei produktuak eta zerbitzuak saltzeko sistemak.

– Merkatu Birtualak (e-Marketplaces): erosle eta saltzaileen arteko negoziazioa erraztuko duten plataformetan enpresari parte hartzeko aukera emango dioten sistemak ezartzea modu elektronikoan.

– Enpresaren web gunea diseinatu eta ezartzea, beti ere, honek, enpresaren informazioaz gain, transakzio komertzialak egiteko aukera eskaintzen badu.

1.– Diagnóstico de necesidades y/o elaboración de planes de implantación de las TICs en las empresas, realizados por entidades o empresas especializadas que no tengan vinculación vía acciones o participaciones ni directa ni indirectamente con la empresa solicitante. Para la elaboración del plan, la empresa especializada deberá seguir la metodología facilitada por SPRI, S.A. o en su caso acreditar disponer de una metodología propia, aceptada expresamente por SPRI, S.A., para la implantación de las TICS en las empresas.

En el caso de utilizar una metodología propia, ésta deberá estar orientada a Pymes, garantizando el enfoque de negocio en la adopción de las TICs de una forma participativa mediante el trabajo conjunto del consultor y el empresario. Mediante su aplicación, se obtendrá un documento que incluya al menos los siguientes apartados:

– Identificación de oportunidades de implantación de TICs para la mejora del negocio.

– Selección de oportunidades mediante la valoración y priorización de las mismas.

– Cuantificación de los beneficios económicos derivados de su implantación.

– Planificación de la implantación en contenidos, coste y plazo de ejecución.

2.– La ejecución de los planes de implantación de las TICs que tiendan a integrar todos o parte de los procesos de negocio de la empresa y que estén relacionados con las siguientes actuaciones:

– Negocio Electrónico (e-Business): implantación de sistemas integrados de gestión y desarrollos y sistemas de gestión financiera y de tesorería que faciliten la implantación de la factura electrónica en la empresa.

– Marketing Electrónico (e-Marketing): implantación de sistemas que optimicen la relación con los clientes mediante la: fidelización de clientes, atracción de clientes, gestión de clientes, personalización de ofertas, publicidad y creación de bases de datos de clientes.

– Compras (e-Procurement): implantación de sistemas de gestión de compras de productos y servicios por parte de la empresa de forma electrónica.

– Comercio Electrónico (e-Commerce): implantación de sistemas de ventas de productos y servicios a los clientes por parte de la empresa de forma electrónica.

– Mercados Virtuales (e-Marketplaces): implantación de sistemas que permitan la participación de la empresa en plataformas que facilitan la negociación entre compradores y vendedores de forma electrónica.

– Diseño e implantación del Web site de la empresa siempre y cuando éste incorpore, además de información sobre la empresa, la posibilidad de realizar transacciones comerciales.

– Enpresaren Intraneta edota Extraneta diseinatu eta ezartzea, enpresako langileen arteko komunikazioa eta enpresaren eta bere bezero eta hornitzaileen arteko komunikazioa optimizatzeko.

– Segurtasun Sistemak diseinatu eta sarean ezartzea.

Eskaria egiten duen enpresarekin inolako loturarik (zuzenekoa nahiz zeharkakoa edo akzioen edo partizipazioen bitartezkoa) ez duten erakunde edota enpresa espezializatuek egin beharko dituzte lan horiek.

*6. artikulua.*– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira 5. artikuluko 1 eta 2 ataletan deskribatutako aholkularitza lanak, ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

– Eskaria egiten duen enpresarekin inolako loturarik (zuzeneko nahiz zeharkakoa eta akzio edo partizipazioen bitartezkoa) ez duten erakunde edota enpresa espezializatuek eginak izan beharko dute, eta ez dira izango ez sozietate publiko, Zuzenbide Publikoko erakunde, fundazio, teknologi zentro, elkarte ezta elkargo profesionalak ere.

– Proiektuek burututa egon behar dute eta EAE barneko jarduera zentro batean kokaturik egongo dira.

– Laguntza eskaria SPRI SAn aurkezten denetik aurrera eta Proiektuaren Hasiera Datatik hurrengo 12 hilabetetan sortu badira.

Ez dira diruz lagun daitezkeen egitate edo jardueratzat joko 5. artikuluan agertzen eta enpresa onuradunaren katalogora biltzen diren produktuak edo zerbitzuak, hau da, ez zaio dirulaguntzarik emango enpresa bati IKT proiektu bat ezartzeko, baldin proiektu hori enpresa onuradunak bere bezeroentzat ezartzen dituen proiektuen tipologia berekoa bada.

*7. artikulua.*– Proiektuak burutzeko epea.

Enpresa onuradunek 12 hilabeteko gehienezko epe bat jarri ahal izango dute proiektua burutzeko, enpresak berak proiektua hasteko ezarri duen datatik aurrera kontatuz.

II. KAPITULUA
LAGUNTZAK

*8. artikulua.*– Laguntzen zenbatekoa.

Diagnostikoak egiteko, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) Ezartzeko Planak taxutzeko eta plan hauek burutzeko, honako dirulaguntza hau jasoko da:

– Enpresa txikientzako, arau honetako 5. artikuluko 1 eta 2. puntuan jasotako diruz lagun daitezkeen gastuen % 35a.

– Diseño e implantación de la Intranet y/o Extranet de la empresa que optimicen la comunicación entre los trabajadores de la empresa y la de esta con sus clientes y proveedores.

– Diseño e implantación de sistemas de seguridad en la red.

Estos trabajos deberán ser realizados por entidades o empresas especializadas que no tengan vinculación vía acciones o participaciones ni directa ni indirectamente con la empresa solicitante.

*Artículo 6.*– Gastos subvencionables.

Tendrán la consideración de gastos subvencionables los trabajos de consultoría descritos en el artículo 5 y que cumplan los siguientes requisitos:

– Que hayan sido realizados por entidades y/o empresas especializadas que no tengan vinculación vía acciones o participaciones ni directa ni indirectamente con la empresa solicitante y que no tengan la consideración de sociedades públicas, entidades de derecho público, fundaciones, centros tecnológicos, asociaciones o colegios profesionales.

– Que los proyectos hayan sido ejecutados y estén localizados en un centro de actividad dentro de la CAPV.

– Que hayan sido devengados a partir de la presentación de la solicitud de ayuda en SPRI, S.A. y durante los 12 meses siguientes a la fecha de inicio del proyecto.

No se admitirán como hechos o actividades subvencionables aquellos productos o servicios descritos en el artículo 5 y que formen parte del propio catálogo de productos/servicios de la empresa beneficiaria, esto es, no se subvencionará a una empresa la implantación de un proyecto de TICs que coincida con la tipología de proyectos que pueda implantar esta misma empresa beneficiaria en sus clientes.

*Artículo 7.*– Plazo de ejecución de los proyectos.

Las empresas beneficiarias podrán establecer un plazo máximo de ejecución del proyecto de 12 meses de duración contados desde la fecha de inicio del proyecto establecido por la propia empresa.

CAPÍTULO II
AYUDAS

*Artículo 8.*– Cuantía de las ayudas.

La realización de diagnósticos, elaboración de planes de implantación y ejecución de los planes de implantación de las TICs recibirá la siguiente subvención:

– Empresas de tamaño pequeño, 35% de los gastos subvencionables descritos en los puntos 1 y 2 del artículo 5 de esta norma.

– Enpresa ertainentzako, arau honetako 5. artikuluko 1 eta 2. puntuan jasotako diruz lagun daitezkeen gastuen % 20a.

Web transakzionalak edo Extranetak garatzearekin lotutako IKTak Ezartzeko Planak burutzeko, eskatzaileek dagozkien laguntzak gehi % 15 jasoko dute, enpresaren tamaina kontuan hartu gabe, baldin eta laguntza eskaria aurkezteko orduan WAI arauak –Webaren Irisgarritasun Ekimena- (Web Accesibility Initiative) (www.w3.org/WAI) betetzen badituzte SPRI SAk ezarritako mailetan (www.spri.net web orrian jasota).

% 15eko dirulaguntza gehigarria emango da WAI arauak betetzeagatik, baina web orri transakzionalen edo estraneten proiektuetarako bakarrik.

Proiektu bat edo gehiago burutzeko gehienezko dirulaguntza 12.000 eurokoa izango da enpresako eta urteko (beharrizanak diagnostikatzeko proiektuetarako edota IKTak ezartzeko planak taxutzeko, eta IKTak ezartzeko planak gauzatzeko). Diagnostikoak egiteko edota IKTak ezartzeko planak taxutzeko dirulaguntzak ez dira izango, nolanahi ere, 2.000 eurokoak baino gehiagokoak.

Salbuespen gisa, Hobeki Digitala Programaren Batzorde Exekutiboak gehienezko dirulaguntza (12.000 euro) handitu dezake eta beste 6.000 euro gehitu bikaintzat jotzen dituen proiektuetarako, hau da, jarraian azaltzen ditugun baldintzetako bat betetzen dutenetarako:

– Enpresaren sektorean berrikuntza nabarmena dakarten proiektuak badira.

– IKTak ezarrita aldaketa kualitatiboa dakarten eta enpresaren lehiakortasuna nabarmen handitzen duten proiektuak badira.

– Teknologia arloan proiektu aurreratuak badira.

Bikaintzat jotzen diren proiektuetan, SPRIk, enpresa onuradunarekin lankidetzan, proiektuaren berri eman ahal izango du eta jardunbide egokiak jasotzen dituzten argitalpenetan edota web orrietan plazaratu ahal izango du.

Enpresa eskatzaileek proiektu bererako eskatutako edo lortutako beste edozein laguntza zein dirulaguntzaren berri eman behar diote SPRI, S.A.ri dirulaguntza eskarian eta likidazio eskarian. Bestela, emandako dirulaguntza berehala itzultzeko eskatuko zaio.

*9. artikulua.*– Minimis klausula.

Arautegi honetan jasotzen diren dirulaguntzak 2001eko urtarrilaren 12ko Batzordearen 69/2001 araudian (EE) –Europako Erkidegoen Egunkari Ofizialean

– Empresas de tamaño mediano, 20% de los gastos subvencionables descritos en los puntos 1 y 2 del artículo 5 de esta norma.

La ejecución de los planes de implantación de las TICs relacionados con el desarrollo de páginas Web transaccionales o Extranets recibirá una subvención adicional del 15% del coste de las acciones anteriores, independientemente del tamaño de la empresa. Ello requerirá la aplicación de las normas WAI (Web Accesibility Initiative – www.w3.org/WAI) en los niveles establecidos por SPRI, S.A. en el momento de presentación de la solicitud de ayuda y que estarán publicados en la web www.spri.net.

La subvención adicional del 15% por cumplimiento de normas WAI solamente será aplicable en el caso de proyectos de páginas Web transaccionales o Extranets.

La subvención total máxima para la realización de uno o mas proyectos será 12.000 euros por empresa y año (para proyectos de 1. Diagnóstico de necesidades y/o elaboración de planes de implantación de las TICs y 2. Ejecución de los planes de implantación de las TICs). La subvención para la realización de diagnósticos y/o elaboración de planes de implantación de las TICs no superara en ningún caso la cantidad de 2.000 euros.

Excepcionalmente, la Comisión Ejecutiva del Programa Hobeki Digitala podrá ampliar la subvención máxima (12.000 euros) en 6.000 euros adicionales para aquellos proyectos que puedan ser catalogados como excelentes, esto es, aquellos en los que se de alguna de las siguientes situaciones:

– Se trate de proyectos que supongan una clara innovación dentro del sector al que pertenece la empresa.

– Se trate de proyectos en los que la implantación de las TICs suponga un cambio cualitativo y que incremente significativamente la competitividad de la empresa.

– Se trate de proyectos tecnológicamente avanzados.

En aquellos proyectos que sean considerados o catalogados como excelentes, SPRI, en colaboración con la empresa beneficiaria, podrá hacer difusión del proyecto e incluirlo en las publicaciones o páginas web en las que se hacen referencia a buenas prácticas.

Las empresas solicitantes tendrán la obligación de comunicar a SPRI, S.A., en la solicitud de ayuda y en la solicitud de liquidación, cualquier solicitud u obtención de subvención o ayuda referida al mismo proyecto. En caso contrario se reclamará la devolución inmediata de la subvención concedida.

***Artículo 9.***– Cláusula de Mínimis.

Las ayudas o subvenciones contempladas en la presente normativa están sujetas a lo dispuesto en el reglamento (CE) n.º 69/2001 de la Comisión de 12 de ene-

2001eko urtarrilaren 13an argitaratua- ezartzen denari lotuta daude. Araudi hori, EEko Tratatuaren 87. eta 88. artikuluak Mínimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Europar Batasunak ezartzen duenez, edozein enpresari ematen zaion Mínimis laguntzak, guztira, ezingo du 100.000 euro gainditu hiru urteko epean. Muga hau laguntza modua edo lortu nahi den xedea zein den kontuan hartu gabe aplikatuko da.

III. KAPITULUA
PROZEDURA

*10. artikulua.*– Laguntza eskariaren aurkezpena

Laguntza eskaria.

Diru-laguntza eskaria internet bidez egin daiteke SPRI SAk xede horretarako jarriko duen helbidean www.eeuskadi.net eta www.spri.es. guneetan. Enpresa onuradunak baliozkotzat joko ditu dirulaguntza eskarian adierazitako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora SPRIk posta elektroniko bidez bidaltzen dituen jakinarazpen guztiak. Laguntza eskaria Internet bidez bete daiteke, SPRI SAk horretarako jarriko duen helbidean (www.eeuskadi.net eta www.spri.es). Enpresa eskatzaileak behar bezala bete beharko ditu inprimakiak, eta gero, SPRI SAri ondorengo dokumentazioa bidaliko dio:

– Laguntza eskariaren inprimakia behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta.

– Enpresaren IFZ edo IFKren fotokopia.

– Jabetzako eskrituren fotokopia, zeinen bitartez egiaztatzen den pertsona sinatzaileak ordezkatzeko nahikoa ahalmen duela laguntza eskari hau enpresaren izenean egiteko.

– Sinatzen duen pertsonaren NANen fotokopia.

– Aholkularitza espezializatuak egindako eskaintzaren fotokopia, bi alderdiek sinatua (enpresa onuradunak eta aholkularitza espezializatuak)

– Enpresa sortu berriak badira eta laguntza eskaria aurkeztu duteneko urtean hasi badute beren jarduera, negozio plana ere aurkeztu beharko dute.

SPRI SAk beharrezko iruditzen zaizkion dokumentu edota datu gehigarriak eska diezazkioke eskatzaileari eta informatikako aholkularitza enpresari, proiektua modu egokian ulertzeko eta ebaluatzeko.

Eskari-orriko datuak SPRI SAren jabetzako fitxategi informatiko batean sartuko dira, eskatzaileak eta informatikako aholkularitza enpresak baimena eman ondoren, eta horren helburua da dirulaguntzen programa hau aplikatzea, hala nola zuentzako interesgarri izan daitezkeen bidalketa informatiboak egitea. Datu hauek Foru Aldundiei edota Eusko Jaurlaritzari utzi ahal izango zaizkie, Dirulaguntzen Programak kudeatzeko helburu bakarrarekin. Eskatzaileak, datuetan sartu, zuzen-

ro de 2001, publicado en el Diario Oficial de las Comunidades Europeas de 13 de enero de 2001 relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado CE a las ayudas de Mínimis. Según lo establecido por la Unión Europea, la ayuda total de Mínimis concedida a cualquier empresa no deberá exceder de 100.000 euros en un periodo de tres años. Este límite se aplicará independientemente de la forma de la ayuda o el objeto perseguido.

CAPÍTULO III
PROCEDIMIENTO

*Artículo 10.*– Presentación de solicitud de ayuda.

Solicitud de Ayuda.

La solicitud de ayuda podrá cumplimentarse a través de Internet en la dirección que SPRI, S.A. habilitará para tal efecto en www.eeuskadi.net y www.spri.es. La empresa beneficiaria dará validez a todas las comunicaciones emitidas por SPRI vía e-mail a la cuenta de correo electrónico de la persona de contacto declarada por la empresa en la solicitud de ayuda. La empresa solicitante deberá cumplimentar debidamente los formularios y posteriormente remitirá a SPRI, S.A. la siguiente documentación:

– Formulario de solicitud de ayuda debidamente cumplimentado, firmado y sellado.

– Fotocopia del NIF o CIF de la empresa.

– Fotocopia de la escritura de apoderamiento, que acredite poder de representación suficiente de la persona firmante para realizar esta solicitud de ayuda en nombre de la empresa.

– Fotocopia del DNI de la persona firmante.

– Fotocopia de la oferta de la consultoría especializada firmada por ambas partes (empresa beneficiaria y consultoría especializada).

– Cuando se trate de empresas de nueva creación que hayan iniciado su actividad en el año de presentación de la solicitud de ayuda, se deberá aportar plan de negocio.

SPRI, S.A. podrá requerir a la empresa solicitante y a la consultora informática cuanta documentación y/o información adicional relacionada con el proyecto objeto de subvención considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación del proyecto.

Los datos de las solicitudes serán incorporados en un fichero informático titularidad de SPRI, S.A., previo consentimiento del solicitante y consultora informática, con la finalidad de aplicar el presente programa de subvenciones, así como para la realización de envíos informativos y que pudieran resultar de su interés. Estos datos podrán ser cedidos a las Diputaciones Forales y/o al Gobierno Vasco con la finalidad exclusiva de la gestión de los programas de subvenciones. El solicitante

du, ezabatu eta aurka azaltzeko eskubideak erabili ahal izango ditu helbide honetan: SPRI SA Gran Via, 35 – 3, 48009 Bilbo.

Ebazpena.

SPRI SAk Hobeki Digitala Programaren Batzorde Exekutibo bat sortuko du eta eskariak ebaluatuko ditu, eta ebazpenen berri emango die enpresa eskatzaileei.

Batzorde Betearazleak 4 hilabeteko epea du gehienez ebazpena eman eta enpresari ebazpen horren berri emateko, dirulaguntza eskaria behar bezala bete eta artikulu honetan adierazitako dokumentazio gehigarria aurkezten den egunetik kontatzen hasita. Sei hilabete igarotakoan ez bada jakinarazpenik egin, laguntza ukatu dela ulertu beharko da, gero kontrakoa jakinarazten denean izan ezik.

SPRI SAren iritzian proiektuaren gastu-aurrekontua handiegia bada antzeko proiektuen batez besteko gastuekin alderatuta, Hobeki Digitala Programaren Batzorde Exekutiboaren esku egongo da diruz lagun daitekeen oinarria murriztea, gastu egokitzat eta proportzionatutzat jotzen den zenbatekoaren arabera.

Likidazio eskaria.

Likidazio eskaria Internet bidez bete daiteke, SPRI SAk horretarako jarriko duen helbidean. Enpresa eskatzaileak behar bezala bete beharko ditu inprimakiak eta, gero SPRI SAri ondorengo dokumentazioa bidaliko dio:

– Likidazio eskariaren inprimakia behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta.

– Proiektuaren Memoria, egindako lanak behar bezala egiaztatzeko.

– Proiektuaren diruz lagun daitezkeen gastuen fakturen fotokopia.

– Proiektuaren diruz lagun daitezkeen gastuak ordaindu izanaren bankuetako frogagirien fotokopia.

– Egiaztagiri eguneratua (zeinaren data ez dadila izan likidazio eskaria aurkeztu den data baino 3 hilabete lehenagokoa) enpresa bere zerga betebeharretan egunean dagoela frogatzeko.

– Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren Probintzi Zuzendaritzaren egiaztagiri eguneratua (zeinaren data ez dadila izan likidazio eskaria aurkeztu den data baino 3 hilabete lehenagokoa) enpresak Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharretan egunean dagoela frogatzeko.

– Erakunde Finantzarioaren egiaztagiria, bankuko kontuaren titulartasuna enpresa onuradunaren izenean dagoela frogatzeko

Likidazio eskaria aurkezteko epea 90 egunekoa da, enpresak laguntza eskarian adierazi duen proiektuaren bukaera datatik zenbatzen hasita.

podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en la dirección de SPRI, S.A. c/ Gran Vía, 35-3.º, 48009 Bilbao.

Resolución.

SPRI, S.A. creará una Comisión Ejecutiva del Programa Hobeki Digitala que evaluará las solicitudes y emitirá las resoluciones correspondientes a las empresas solicitantes.

La comisión ejecutiva emitirá la resolución y la comunicará a la empresa en el plazo máximo de 4 meses contados a partir de la fecha en que la solicitud de ayuda esté debidamente cumplimentada y haya sido aportada la documentación adicional indicada en este artículo. Transcurridos 6 meses sin mediar comunicación, se entenderá denegada salvo notificación positiva ulterior.

Si SPRI, S.A. considera que el presupuesto de gasto del proyecto es excesivo en comparación con el coste medio de gastos en proyectos de análoga naturaleza, la Comisión Ejecutiva del Programa Hobeki Digitala podrá reducir la base subvencionable, en la cuantía correspondiente, a lo que se considera un gasto ajustado y proporcionado.

Solicitud de liquidación.

La solicitud de liquidación se cumplimentará a través de Internet en la dirección que SPRI, S.A. habilitará para tal efecto. La empresa solicitante deberá cumplimentar debidamente los formularios y posteriormente remitirá a SPRI, S.A. la siguiente documentación:

– Formulario de solicitud de liquidación debidamente cumplimentado, firmado y sellado

– Memoria del proyecto que acredite suficientemente los trabajos realizados.

– Fotocopia de las facturas de los gastos subvencionables del proyecto.

– Fotocopia de los justificantes bancarios de pago de los gastos subvencionables del proyecto.

– Certificado actualizado (cuya fecha no preceda en mas de 3 meses la fecha de presentación de la solicitud de liquidación) que acredite que la empresa se encuentre al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones fiscales.

– Certificado actualizado (cuya fecha no preceda en mas de 3 meses la fecha de presentación de la solicitud de liquidación) de la Dirección Provincial de la Tesorería General de la Seguridad Social que acredite que la empresa se encuentre al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones para con dicho organismo.

– Certificado de la entidad financiera que acredite la titularidad de la cuenta bancaria a nombre de la empresa beneficiaria.

El plazo de presentación de la solicitud de liquidación será de 90 días contados a partir de la fecha de finalización del proyecto establecido por la empresa en la solicitud de ayuda.

Proiektua amaitzen denean eta enpresak likidazio eskarian ezarritako agiriak aurkezten dituenean ordainduko dira dirulaguntzak.

Diruz lagun daitekeen gastua enpresak laguntza eskarian aurreikusi duena baino txikiagoa bada, dirulaguntza proportzionalki egokituko zaio proiektua gauzatzeko ezarri den portzentajeari.

SPRI SAk arautegi honek barne hartzen duen programaren karietara bidaltzen dituen jakinarazpen guztiak, posta elektronikoz bidaliko ditu bakarrik, hori dela eta, enpresa onuradunak eguneratua eduki behar du harremanetarako helbide elektronikoa.

Dirulaguntza eskarian zein likidazio eskarian egin behar diren zuzenketa guztiak (dokumentazio falta, eta abar) posta elektronikoz jakinaraziko dizkio SPRI SAk enpresa onuradunari, 10 egun naturaleko epean falta hori zuzen dezan, aginduzko agiriak helaraz ditzan edo eskatutako azalpenak eman ditzan, eta hala egin ezean eskarian atzera egin duela ulertuko da, nolanahi ere, horretarako Batzorde Exekutiboak ebazpen bat eman beharko du aurretik.

Dirulaguntza eskaria aurkeztean, SPRIk web formulario bat jar dezake enpresa onuradunaren esku, eta formulario honek hala proiektuaren eraginaren nola hornitzailearen ebaluazioa jakinaraziko dizkio.

## IV. KAPITULUA
## ARAUAK EZ BETETZEA

*11. artikulua.–* SPRI SAk, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin lankidetzan, ekimena bultzatzeko arduraduna baita, eskubidea gordetzen du Hobeki Digitala Programaren garapena eta aplikazioa bermatze aldera egoki ikusten dituen egiaztapen, ikuskaritza eta gainontzeko kontrol neurriak gauzatzeko eta baliabide publikoak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzeko.

*12. artikulua.–* Egiaztapen hauetan ikusiko balitz dirulaguntzaren onuradunak ez duela programa honetan ezarritako baldintzetakoren bat bete, kobratu dituen diru kopuruak itzul ditzala eskatuko dio SPRI SAk eta, bere kasuan, itzulketa hori egin dadin behar diren legezko jarduerak martxan jartzeari ekingo dio. Era berean, aholkularitza enpresak hutsegiteren egin badu, programa honi atxikitako beste proiektu batzuetan parte hartzea debeka dakioke.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ez dira diruz lagun daitezkeen jardueratzat hartuko SPRI, SAri lehenago aurkeztu zaizkion eguneratze edo mantentze proiektuak, baldin eta proiektu horietarako dirulaguntza jaso bada

El Pago de las subvenciones se realizará íntegramente a la finalización del proyecto y una vez que la empresa haya presentado los documentos establecidos en la solicitud de liquidación.

En el supuesto de que el gasto subvencionable realizado sea inferior al presupuesto previsto por la empresa en la solicitud de ayuda, la subvención se ajustará proporcionalmente al porcentaje de ejecución del proyecto.

Todas las notificaciones que remita SPRI, S.A. en base al programa que recoge la presente normativa, se realizarán exclusivamente vía e-mail, por lo que la empresa beneficiaria deberá tener actualizado el e-mail de contacto.

Todas las subsanaciones que pudieran requerir tanto la solicitud de ayuda como la solicitud de liquidación (falta de documentación, etc.) serán comunicadas por SPRI, S.A. a la empresa beneficiaria vía e-mail para que, en un plazo de 10 días naturales subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos o aclare las explicaciones requeridas, con indicación de que si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa Resolución de la Comisión Ejecutiva.

En el momento de la presentación de la solicitud de ayuda, SPRI podrá poner a disposición de la empresa beneficiaria un formulario web que recoja la evaluación del impacto del proyecto en su empresa así como la evaluación del proveedor.

## CAPÍTULO IV
## INCUMPLIMIENTOS

***Artículo 11.–*** La SPRI, S.A. en colaboración con el Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, como responsable del impulso de la iniciativa, se reserva el derecho de realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás medidas de control estime oportunas para velar por la correcta aplicación de los recursos públicos y para verificar el correcto desarrollo y aplicación del Programa Hobeki Digitala.

***Artículo 12.–*** Si en el curso de estas verificaciones se detectase que el beneficiario de la subvención ha incumplido alguna de las condiciones establecidas en el presente programa, se procederá por parte de la SPRI, S.A. a solicitar la devolución de las cantidades percibidas procediéndose, en su caso, a poner en marcha las actuaciones legales a las que hubiera lugar para conseguir su reintegro. Así mismo, se podrá imposibilitar a la empresa consultora a realizar nuevos proyectos acogidos al presente programa si se comprobase falta de la misma.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

No tienen consideración de actividades subvencionables aquellos proyectos de actualización o mantenimiento que hayan sido presentados con anterioridad en SPRI, S.A. y se hayan apoyado.

AZKEN XEDAPENAK

1.– Onuraduna behartuta dago SPRI SAri, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikorako Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari edozein informazio ematera, dirulaguntzen helburuaren fiskalizazio lanak direla-eta hala eskatzen badiote.

2.– Hobeki Digitala Programaren laguntza neurrien indarraldia EHAAn argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2006-10-09an bukatuko da, baina adierazten da, hala ere, aurkezten diren eskariak ekitaldi bakoitzean aztertuko direla hurrenkera kronologikoaren arabera, behar bezala bete direnean eta urtean helburu horretarako gaitu den kredituaren mugara arte. Kreditua agortu eta gero, ez da eskaririk aztertuko, nahiz eta aurkezturik egon.

3.– SPRIren erabakia merkataritza alorrekoa da eta eskuduntza jurisdikzionala epaile eta auzitegi zibilena da. Enpresa onuradunak, eduki dezaketen edozein eskumeni formalki uko eginez, dirulaguntzen programa hau interpretatu edo gauzatzerakoan sor daitekeen edozein auzi, desadostasun, arazo edo erreklamazio konpontzeko Bilboko Justizia Auzitegien esanetara jartzen dira espresuki, horiek baitira gai horietan eskuduntza dutenak.

4.– Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu bateratua onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza-Dekretuan xedatutakoaren arabera jokatuko da.

Bilbao, 2006ko martxoaren 30a.

SPRI SAko presidentea,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

DISPOSICIONES FINALES

1.– El beneficiario se obliga a facilitar cuanta información le sea requerida por SPRI, S.A., la Oficina de Control Económico del Gobierno Vasco y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

2.– La vigencia de las medidas de apoyo del Programa Hobeki Digitala será desde el día siguiente de su publicación en el BOPV hasta el 09-10-2006, señalándose, sin embargo, que las solicitudes que se presenten serán atendidas en cada ejercicio por el orden cronológico que les corresponda a partir del momento en que estén debidamente cumplimentadas, y hasta el límite del crédito anual disponible. A partir del agotamiento del crédito no se atenderá a las solicitudes posteriores aun cuando estuvieren ya presentadas.

3.– La decisión de la SPRI es de naturaleza mercantil y la competencia jurisdiccional es de los jueces y tribunales civiles. Las empresas beneficiarias, con renuncia formal a cualquier fuero que pudiera corresponderles, se someten de manera expresa, para la resolución de todo litigio, discrepancia, cuestión o reclamación que pudiera suscitarse, directa o indirectamente, respecto de la interpretación o ejecución del presente programa de ayudas, a los Tribunales de Justicia de Bilbao, competentes al efecto.

4.– En todo lo no previsto en estas bases, se estará a lo establecido en el Decreto Legislativo 1/1997 de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

En Bilbao, a 30 de marzo de 2006.

La Presidenta de SPRI, S.A.,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

## MONDRAGÓN AUTOMOCIÓN S. COOP.

## 2417

IRAGARKIA, Mondragón Automoción CHP, S. Coop.ek (sozietate bereganatzailea) eta Mondragón Automoción BCM, S. Coop.ek (sozietate bereganatua) bat egin dutela jakinaraztekoa.

Euskadiko kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 79.6 artikuluak dioena betez, publiko egiten da sozietate horiek 2006ko martxoaren 31n egindako Batzar Nagusiek aho batez erabaki zutela Mondragón Automoción CHP, S. Coop.ek Mondragón Automoción BCM, S. Coop. bereganatuz Mondragón Automoción

## MONDRAGÓN AUTOMOCIÓN S. COOP.

## 2417

ANUNCIO de acuerdo de Fusión entre Mondragón Automoción CHP, S. Coop. (Sociedad Absorbente) y Mondragón Automoción BCM, S. Coop. (Sociedad Absorbida).

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 79.6 de la Ley 4/1993, de 24 de junio, de Cooperativas de Euskadi se hace público que las Asambleas Generales celebradas por estas sociedades el día 31 de marzo de 2006, acordaron por unanimidad, aprobar la fusión de Mondragón Automoción CHP, S. Coop. con Mondra-